IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 919
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA
kirolak@pasaia.net

Pasaiako udalerriko kirolguneetako (Trintxerpe eta Donibane) instalazioen zerbitzua kudeatzeko kontratuaren bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.

1.- SARRERA

Gauzatuko den kontratuaren xedea hau da: Pasaiako udalerriko Trintxerpe eta Donibaneko Kirolguneen kudeaketa egitea. (aurrerantzean, ikerketa honetan, PKG).

Kontratuaren Iraupena

Kontratuaren iraupena urte batekoa izango da, eta urtero-urtero luza daiteke, urtebeteko luzapenen bidez. Kontratuaren iraupena, luzapenak barne, gehienez ere lau urtekoa izango da.

Kontratua loteetan banatzea

SPKL Legearen 99.3 artikuluari jarraiki, kontratua kudeaketa integrala du helburu, beraz, Pasaiako Trintxerpeko eta Donibaneko Kirolguneei atxikita dauden eginkizunak modu bateratuan betetzea da helburua, hori baita biderik hoberena baliabide-ekonomiko, -material zein giza-baliabideak kudeatzeko eta optimizatzeko, bi instalazioen arteko indarguneak probesteko eta herritarrei begira kalitate handiagoko eskaintza bateratu bat zabaltzeko

Ildo horretan, kontratuaren helburuetan jasotako prestazioak aparteko loteen arabera adjudikatzeak (kirol ustiapena, instalazioak garbitzea, mantentze-lanak,...) zaildu egiten du kontratua ikuspuntu teknikotik zuzen gauzatzea, koordinatzeko beharra baitakar, eta hori ezinezkoa izan liteke loteetan banatu eta hainbat kontratistak gauzatuz gero.

Esan bezala, loteetan banatzeak, lizitatzaile bati baino gehiagori adjudikatzeko aukerarekin, arriskuan jarriko luke kontratuaren bideragarritasun ekonomikoa, kontuan hartuta kontratuak duen finantziazio bolumena handia dela; ekintza guztien diru-sarrerek helburu eta interes bakar batean bat egin behar baitute.

Kontratazio berri honen baldintza-agiriak prestatzerakoan, datu ekonomikoen azterketa eta ustiapen ekonomikoaren bideragarritasuna atal garrantzitsua izan da. Kontratu berriko ustiapen ekonomikoaren bideragarritasuna aztertzeko ezinbestekoa da aldez aurretik datu ekonomikoen azterketa egokia egitea.

Datu ekonomikoen azterketan aurreko kontratuan izandako datu ekonomikoak ditugu abiapuntu, bereziki 2022koak.

Ondorioz, aurreko kontratuaren datuetan kontuan izan behar dira 2018-2019 urtetik izandako ohiko datuak eta 2022koak. Aipatutako urteetako joeren analisiak aztertu dira eta pandemia garaiko datuak ez dira kontuan hartu kalkuluen gainean ondorioak ateratzeko.

2.- OINARRIZKO DATUAK

Pasaiako udalaren web orrian www.pasaia.eus udalerriaren lurralde ezaugarriak eta biztanleen osaerari buruzko oinarrizko datuak daude jasota (tasak, instalazioak irekitzeko egutegiak,...), eta kontratu hau egiteko kontuan hartu dira hain zuzen gutxi gorabehera jakiteko zer eskari egon den eta kontratuari atxikitako gainerako baldintzak zehazteko.


Txosten honen 4. eranskinean azken ekitaldietako abonatuen eta erabiltzaileen banaketa datuak jasotzen dira.

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

3.- KONTRATUAREN XEDE DIREN INSTALAZIOEN DESKRIBAPENA

Kontratuaren xede diren udal kirol-instalazioak hauek dira:

TRINTXERPEKO KIROLGUNEA



- Sarrera eta bulegoa (eskaileretarako eta igogailurako sarbidea)
- Kardio-gela
- Erabilera anitzeko gela txikia
- Erabilera anitzeko gela handia
- Karga-/indar-gela
- Aldagelen gunea
- Sauna aldea
- WC


Araneder gunea:

- Frontoia: frontoi motza eta aldagela 1 + WC
- Aranederreko kirol-pisten azpiko lokalak:
- Rokodromo 1, eskala-eremua.
- Borroka-kiroletako erabilera anitzeko eremu bat.
- Erabilera anitzeko eremu bat, entrenamendu funtzionala egiteko.
- Biltegi txikia
- Aranederreko kirol anitzeko pistak.

- **Azkueneko kirol anitzeko pistak.**





San Pedroko Gimnasioa





ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

DONIBANEKO KIROLGUNEA (Z. Deportiva Pública)









ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

Kontratu berrirako instalazioetan egindako hobekuntzak

Pasaiako udalaren web orrian www.pasaia.eus udalerriaren lurralde ezaugarriak eta biztanleen osaerari buruzko oinarrizko datuak daude jasota (tasak, instalazioak irekitzeko egutegiak...), eta datu horiek hartu dira kontuan txosten hau egiteko, gutxi gorabehera jakiteko zer eskari egon daitekeen eta kontratuari atxikitako gainerako baldintzak zehazteko.

TRINTXERPEKO KIROLGUNEA		
Deskribapena	Zenbatekoa BEZ barne	Lotutako hobekuntzak
Argiak berritzea Azokako gimnasioko gela guztietan	7.810,10 euro	Kontsumoari lotutako hobekuntzak (% 40ko murrizketa gutxi gorabehera) eta erabiltzaileen erosotasuna hobetzea.
Argiak berritzea, Trintxerpeko frontoian proiektore zahar guztien ordez LED teknologiako fokuak jarriz.	2.215,55 euro	Kontsumoari lotutako hobekuntzak (% 45eko murrizketa gutxi gorabehera) eta erabiltzaileen erosotasuna hobetzea.
Azokako gimnasioko halterak berritzea	1.890,20 euro	Erabiltzaileen gogobetetzeari lotutako hobekuntzak, udal-gogobetetzeari buruzko inkestan adierazitako kexei dagokienez.
Azoka Gimnasioko estalki nagusia osorik berritzea, aldagelak eta korridore nagusia.	25.980,10 euro	Aurreko egituraren hotz-beroaren balio txikienekin lotutako energia-kontsumoarekin lotutako hobekuntzak. Erosotasuna hobetzea, eta erabiltzaileen gogobetetzeari lotuta, udalen gogobetetzeari buruzko inkestan adierazitako kexei dagokienez.
Rokodromoko ekipamendua berritzea	11.280,25 euro	Ekipamenduaren segurtasuna eta erosotasuna hobetzea, bai ikastaroak antolatzeko, bai erabiltzaile indibidualentzat, gune horrekin lotutako diru-sarrerak areagotzeko aukerak hobetuz.
Entrenamendu funtzionalerako eremu berri bat egokitzea eta instalatzea.	8.405,56 euro	Gutxiegi erabilitako espazioa hobetzea, jarduera-eremu indibidual eta gidatuentzat 50 m2 gehiago irabazita. Eremua osorik hornitu da, eta espazioaren erosotasuna optimizatu da, bai ikastaroak antolatzeko, bai erabiltzaile indibidualen erosotasuna hobetzeko, eremu horrekin lotutako diru-sarrerak areagotzeko aukerak hobetuz.
Komunaren egokitzapena eta hobekuntza kirolgunearen goiko aldean.	4.580,20 euro	Espazio osoa berritu du, frontoiari, rokodromoari eta eremu funtzionalari lotutako funtsezko zona dela jakinda. Erabiltzaileen erosotasuna hobetzea dakar.
Instalazio periferikoen sarbidea kontrolatzeko sistemak hobetzea, harreratik zuzenean monitorizatzeko.	6.810,12 euro	Supone una mejora de cara al control de accesos remoto y control de las instalaciones superiores para optimizar su uso y su control desde la recepción del complejo. Urruneko sarbideen kontrolari eta goiko instalazioen kontrolari dagokionez hobekuntza dakar, kirolgunearen harreratik erabilera eta kontrola optimizatzeko.
Guztira	61.161,98 euro	
DONIBANEKO KIROLGUNEA		

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 919
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA
kirolak@pasaia.net

Ciclo indorreko bizikletak		Aurreko materiala berritu.
Guztira	15.172,79 euro	
Guztira Pasaiako Kirolgunetan		**76.334,77 euro**

4.- KONTRATUAREN XEDE DIREN KIROL-INSTALAZIOAK JENDEARENTZAT IREKITZEKO EGUTEGIA.

Erantsita doa 1. eranskinean egungo 2023ko egutegia.
Donibaneko gimnasion neguko ordutegiaren murrizketa planteatzen da plegu berrietan eta eremu horren itxiera teknikoa programatzea ematen da aukeran urtero astebetez.

5.-DIRU-SARREREN ETA GASTUEN ZEHAZTAPENA

Dagoeneko martxan dauden kirol-instalazioen kudeaketaz ari garenez (hau da, instalazioak irekitzeko ordutegian, egutegian, etab. ez dago aldaketa esanguratsurik), kalkuluaren oinarri gisa aurreko ekitaldian (2022an) lortutako ustiapen-datuak hartu dira kontuan oraingo joerak aztertzeko.

Horri gehituta, irakurketa berezi bat egiten da txosten honen aurreko puntuan zehaztutako hobekuntza eta inbertsioei lotuta.

Dena den, ez dira kontuan hartzen enpresa esleipendunak kontratu honetan susta ditzakeen prestazio berrien aurreikuspenak.

Hala ere, kontuan hartu dira zerbitzua emateko bestelako baldintzak diru-sarrerei dagokienez:

- Lehentasuna ematea kirol-erakundeen praktika federatuari eta doan.
- Eskola Kirolak ere lehentasuna izango du instalazioak erabiltzeko garaian eta doan.

5.1.- DIRU-SARREREN KAPITULUA

Kontratista gertatzen den enpresak honako kontzeptu hauen kontraprestazioak jasoko ditu:

- Kirol-instalazioetako bazkideen kuotek sortutako diru-sarrera guztiak.
- Kirol-instalazioetan kontratista den enpresak antolatutako zuzendutako jarduerengatik sortutako diru-sarrera guztiak.
- Kontratista den enpresak antolatutako zerbitzuek (kirol medikuntza, estetika, fisioterapia eta bsete) sortutako diru-sarrera guztiak.
- Vending makinak ustiatzeagatik izandako diru-sarrerak.
- Udalaren ekarpen ekonomikoa.
- Bestelako ez-ohiko jardueren erabilerengatik sortutako alokairuak.

Oro har, udaleko kirol-instalazioen kudeaketatik eratorritako diru-sarrera guztiak, kirol-materialaren edo merkataritza-sustapeneko materialaren salmenta barne.

Enpresa emakidadunak ez du ordainsaririk edo konpentsaziorik jasoko Pasaiako Udalarengandik, udal kirol instalazioetan hirugarrenei eta Udalari berari doan eman behar dizkien zerbitzu eta erabilerengatik, Agiri Teknikoetan adierazitakoaren arabera.

Kontzeptu horietan, honako hauek sartzen dira, zerrenda itxia izan gabe:

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

• Kirol-erakundeen eta udalaren beraren doako erabilerak: kirolari federatuen sarbidea, dutxa-zerbitzua eta kirol instalazioen erabilera herriko jaietan edota bestelako kirol ekitaldietan, Udalak antolatutako udalekuetarako sarbideen erabilerak...

• Kirol erakunde federatuek, eskolakoek eta hezkuntza zentroek doan erabiltzea, entrenamenduak, lagunarteko partida ofizialak eta bestelako saioak egiteko.

• Frontoia doan erabiltzea kultur edota gizarte ekitaldiak egiteko.

Enpresa emakidadunak "zergapekoak ez diren ondare-prestazio publikoak arautzen dituen ordenantzan onartutako prezioak" kobratuko ditu. Ikusi 2. eranskina.

Abonatuak:

2023. urte bukaera bitartean abonatutako pertsonen kopurua mantentzea eta % 7 handitzea aurreikusten d . Tasak, berriz, izoztuta jarraituko dutela aurreikusten da.

2024. urtetik aurrera urtero % 10eko igoera aurreikusi da: bazkidetzeen igoerari dagokionez % 9 eta tasen eguneraketari dagokionez %1a gutxienez urtero. Hori horrela izanda, 2019ko abonatu datuak kudeaketa berri honen 4. urtean lortzeko modukoa dela baloratu da.

MUGIMENT Kirol txartelarekiko atxikimendua. Pasaiako Kirolguneak Mugiment kirol txartelaren sarean sartuko dira. Txartel amankomun horrek udalerrietan izan duen eraginaren estrapolazioa eginez, aurreikusten da % 5-10 bitartean indartuko direla urteko bazkidetzak eta berriak erakarriko direla.

3. puntuan azaldutako hobekuntza guztiei esker eta atal honetan egiten den azalpenekin, bazkideen erakarpena indartzen da.

Dena den, komeni da azpimarratzea, bazkidetzen igoera kontratista den enpresa lizitatzailearen trebetasun profesionalaren, eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatearen eta marketin estrategiaren mende dagoela neurri handi batean.

Jarraian dagoen taulan islatzen dira 2018tik 2023ko urtarrilera bitarteko abonatuen kopuruen laburpena:

	Bazkide ordaintzaileak (kopuruak)					urtarrila
	2018	2019	2020	2021	2022	2023
DKG	268	263	238	166	178	194
TKG	363	338	220	214	259	311
Guztira PKak	**631**	**601**	**458**	**380**	**437**	**505**

Matrikulagatiko diru-sarrerak

Udalak ez du matrikularik ezarrita. Ikastaroen altak eta bajak doitzeko neurri batzuk indarrean daude kirol instalazioen araudian.

Ikastaroengatiko diru-sarrerak (zuzendutako jarduera fisikoak).

Enpresa esleipendunak urteko hilabete guztietan antolatutako jarduerak plantea ditzake baldintza-agirian eskatutako gutxienekoak betez.

Lizitatzaile berriak indarrean dauden ikastaroen jarraipena bermatu beharko du.

Dena den, eskaintza orokorrari begiratuz, honako hauek bete behar ditu:

Trintxerpeko kirolgunean esleipendunak gutxienez 15 ikastaro egingo ditu ikasturteko iraupenarekin, asteko ordubete, bi ordu edo hiru ordukoak. Eta horietako 4, gutxienez, haurrentzako izango dira. Era berean, eskola-egutegiko pilota, eskalada eta entrenamendu funtzionaleko ikastaroak eskaini beharko ditu. Udan, gutxienez, 6 ikastaro eskaini beharko ditu, eta egoki irizten dituen beste ikastaro batzuk gainerako oporraldietan.

Donibaneko kirolgunean esleipendunak gutxienez 18 ikastaro egingo ditu ikasturteko iraupenarekin, asteko ordubete, bi ordu edo hiru ordukoak. Eta horietako 4, gutxienez, haurrentzako izango dira. Halaber, piraguako ikastaroak edo irteerak eskainiko ditu udan: ekainetik irailera. Tximistarriko eskalada gunea

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 919
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA
kirolak@pasaia.net

bultzatuko du, berariazko ekintzak eginez. Udan, gutxienez, 6 ikastaro eskaini beharko ditu, eta egoki irizten dituen beste ikastaro batzuk gainerako oporraldietan.

Helduentzako ikastaroak, ikasturtekoak eta udakoak.

Helduen jardueretarako, enpresa esleipendunak banakako ikastaroak plantea ditzake eta hileko prezio finkoa duen zirkulazio askeko parrila bat. Biak bateragarriak dira.

Egun indarrean dauden ikastaroak hauek dira:

TRINTXERPE:

Tonifikazioa
AR-OG 18:15-19:15 (12 kide)

Kstretcha
AR 16:00-21:00 (34 kide)
OG 17:00-21:00 (26 kide)
OR 10:30-13:30 (19 kide)

SAN PEDRO:

Pilatesa
AS AZ 20:00-21:00 (8 kide)

DONIBANE:

Zumbastep a
AL-AZ-OR 9:30-10:30 (11 kide)

Pilates:
AL-AZ-OR 9:30-10:30 (13 kide)
AR-OG 18-19 (8 kide) eta 19-20 (9 kide)

Zumbatonia
AL-AZ 18-19 (12 kide)

Entrenamendu funtzionala
AL-AZ 19-20 (10 kide)

Zumba
AL-AZ 15-16 (8 kide)

Kontratua hasi eta ekaina bitartean ikastaroen kopuru horri eustea aurreikusten da. Ikastaroen ikasturte berriaren hasierarekin eta enpresak egiten duen aurreikuspen, zabalkunde eta marketing estrategiaren baitan, (urritik abendura) pandemia aurreko datuak berreskuratu daitezkeela aurreikusten da. Gainera prestatu eta eskainiko diren espazio berriei esker, eskaintza indartu daitekeela aurreikusten da.

Jarraian dagoen taulan islatzen dira 2019ko, 2022ko eta 2023. urtarrileko ikastarogileen kopurua:

Ikastarogileak (kopuruak)			Urtarrila
	2019	2022	2023
DKG	178	75	71
TKG	208	122	91
Guztira PK	**386**	**197**	**162**

Ratioak: ikastaroa ekonomikoki sostengatu ahal izatea bermatzen bada, banakako ikasleen eta

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

tarifa laukoen artean, ikastaroa abian jarriko da eta ikasturte osoko iraupena izango duela bermatuko da.

Begiraleak: enpresak langile prestatuak bermatuko ditu eskaintzen dituen jarduera bakoitzeko. Baja guztiak ordezkatuko ditu. Ikastaro bat martxan jartzeko baldintzak ematen badira, begiralea bermatuko da. Ikastaro bat martxan dagoenean bajak badira, gehienez bi egun begirale gabe pasa eta gero, enpresak jarduera horretarako begirale berria bermatuko du. Baldintza hauek ez badira bermatzen, udalak arau-hauste larritzat hartuko ditu eta dagozkion isunak ezarriko ditu.

Enpresa aldaketa gertatzen bada, aurreko enpresak kobratutako eta eman ez dituen zerbitzuengatik dituen diru-sarrerak, lizitatzaile berriaren diru-sarrerak izango dira.

Jarduera nagusiaren zerbitzu osagarriengatiko diru-sarrerak honako hauek:

Jarraian dagoen taulan islatzen dira 2019ko, 2021eko eta 2022ko zerbitzu osagarrien diru-sarrera kopuruak.

Bestelako kontzeptuengatik izandako sarrerak		
2022	DKG	TKG
Banakako sarrerak	397,21	739,47
Instalazioen alokairuak	3190,41	1316,59
Piragua/SUP alokairuak eta estibak	7353,88	0
	10941,5	2056,06
Guztira PK	**12.997,56**	

Jarraian dagoen taulan islatzen dira 2019ko, 2021eko eta 2022ko tasengatik guztirako diru-sarreren kopuruak:

Tasengatik izandako sarrerak guztira			
	2019	2021	2022
DKG	60336	40217	45076,8
TKG	81717	56263	58045,86
Guztira PKak	**142053**	**96480**	**103122,66**

5.2.- GASTUEN KAPITULUA

Baldintza-agirietan jasotakoaren baitan, enpresa kontratistak honako gastu hauek hartu beharko ditu bere kontu:

1. GASTU OROKORRAK. Esleipendunaren kontura izango dira kirol, garbiketa eta mantentze-lanen arloetako kudeaketa, instalazioen kontrola eta, aurrerago zehaztuta agertzen den moduan, urtean finkatutako kw/urteko langatik gorako gas-horniduraren eta hornidura elektrikoaren kontsumoen ordainketa, bai kudeatzailearen beraren erabileratik etorritakoak eta bai Udalaren erabileratik edo Pasaiako Udalak baimendutako beste entitate batzuen erabileratik etorritakoak. Azkueneko eta Aranederreko pistari, Donibaneko pilotalekuari eta San Pedroko gimnasioari dagokienez, ez ditu bere gain hartuko kontsumo eta hornidura-gastuak.

Kudeatzen dituzten instalakuntzen kontadoreen kontsumo-irakurketak egin beharko dituzte JFKSk eskatzen dituen maiztasun eta ezaugarriekin.

Hortaz, bere gain hartuko ditu langileak kontratatzeko gastuak, telefonoa, bulego materiala, garbiketako materiala, kirol materiala, eta jardueraren ohiko garapenetik eratorritako gastuak.

2. **MANTENTZEA-MATXURAK**. Esleipendunak bere kontura egingo ditu matxura txikien konponketak edo material aldaketak aurrerago zehaztutakoen arabera instalazio guztietan*. Esleipendunak ezingo ditu konponketen zenbatekoak pilatu, ordainketatik salbuesteko zenbatekoa lortzeko.

*Azkueneko pistan, Aranederko pistetan eta Donibaneko frontoian izan ezik, horiek Udalak hartuko ditu bere

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 919
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA
kirolak@pasaia.net

gain. Dena den, eremu horietan beharrezkoak diren konponketen eta matxuren berri emango dio kudeatzaileak JFKSri, eta, beharrezkoa bada, konponketa horiek koordinatuko ditu.

INSTALAZIOAREN ERABILERA EGOKITIK ERATORRITAKO OHIKO MANTENTZE-LANA

Konponketa txikia bada, hau da, langile espezializaturik edo denbora askorik behar ez duena, eta, beraz, eguneroko mantentze-lanetako langilearen gainerako lanak egitea oztopatuko ez duena. Adibide gisa, eta zerrenda itxi gisa hartu gabe, konponketa txikitzat hartuko dira honako hauek: teilatu-hodiak, hustubideak eta saretak garbitzea, barruko argiak aldatzea, eserlekuak ordeztea, sarrailak eta eskutokiak konpontzea, pintura lanak…

Konponketarako materiala: konponketa horiek egiteko beharrezko materiala kudeatzailearen kontura izango da, betiere unitate bakoitzaren balioa 300 eurotik (BEZ gabe) gorakoa ez bada. Zenbateko hori ezarri da unitateko prezio gisa.

Konponketarako eskulana: eskulanerako ez badago espezialista baten beharra, kudeaketako mantentze-lanetako langileekin egingo da. Kanpoko espezialisten lana beharrezkoa bada, kudeatzailearen kontura izango da, betiere lan bakoitzaren eskulanaren balioa 150 eurorainokoa bada (BEZ gabe).

Esleipendunak ezin ditu inondik inora kalteak eta konponketak pilatu eta Udalak egin beharrekotzat jo.

Gertakariaren eta konponbidearen berri emango du.

Konponketa txikia ez bada, edo eskulan espezializatua behar badu, profesional batekin harremanetan jarriko da, aurrekontua eskatzeko. Aurrekontu hori Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Sailera bidaliko da lehenbailehen. Sail horretako teknikaria Zerbitzu Sailarekin koordinatuko da, konponketaren balorazioa egiteko, eta baliabide propioekin edo azpikontratatutako baliabideekin egingo den erabakitzeko. Udalaren oniritzia jaso ondoren, kudeatzaileak eragindako gremioa koordinatuko du, aurrekontuan jasotako hutsuneak konpontzeko, eta enpresari adieraziko dio haren lana nola fakturatu behar duen.

3. **GARBIKETA**. Instalazio guztien garbiketa-gastuak hartuko ditu bere gain (Aranederreko pistenak, Azkueneko pistenak, Donibaneko pilotalekuarenak eta San Pedroko gimnasioarenak izan ezik), eta horien egoera ona ziurtatuko du.

3. Zerbitzu profesional independenteak:

Honako zerbitzu hauek azpikontratatzeari dagokio: fisioterapia, bestelako profesional autonomoak, azterlanak...

4. Aseguru-primak:

Kontratua gauzatzean eragin ditzakeen kalteengatiko erantzukizun zibileko asegurua kontratatu beharko da.

5. Banku-gastuak eta antzekoak:

Banku-gastuen aurreikuspenaz gain, beste gastu batzuk ere aurreikusten dira, hala nola zergak eta tasak.

6. Publizitatea eta propaganda:

Partida bat aurreikusi da erabiltzaileei zuzendutako publizitate-kanpainetarako, propagandarako eta komunikazio-jardueretarako. Plegu teknikoetan zehaztutakoak hauexek dira:

Publizitatea, weba, sare sozialak, buletinak eta mailingak.

Esleipendunak, JFKSren zuzendaritzapean, gutxienez 3 publizitate-kanpaina diseinatu eta ordainduko ditu urtean, herritarrei udalaren kirol-eskaintza helarazteko:

- **Posta/buzoneo bidez**: kanpaina bakoitzean (hurrengo atalean zehazten direnak) 7.000 ale aterako dira. 6.500 inguru kudeatzaileak buzoneatuko ditu barruti guztietako atarietan eta 500 JFKSari emango zaizkio Udalak bere zerbitzuetan banaketa egiteko.

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

- **Prentsaren bidez**: urtean 3 iragarki/faldoi.
- **Bestelako bideak erabiliz:** zabalkunde digitalak.

Kanpainen maiztasuna hau izango da:

- **Lehenengoa**: urte hasieran (diseinu- eta eduki-proposamena aurkeztuko du, JFKSk oniritzia eman diezaion abenduaren 1a baino lehen)
- **Bigarrena**: uda hasieran (diseinu- eta eduki-proposamena aurkeztuko du, JFKSk oniritzia eman diezaion ekainaren 1a baino lehen),
- **Hirugarrena**: ikasturte hasieran (diseinu- eta eduki-proposamena aurkeztuko du, JFKSk oniritzia eman diezaion abuztuaren 1a baino lehen).

Komunikazio-euskarri guztietan (digitalak, paperezkoak edo bestelakoak) logo eta irudi korporatibo bakarra erabiliko da: Pasaiako Udaleko JFKSrena eta Pasaia Badia Aktiboaren estrategiarena.

Euskarri horietan Pasaiako kirolguneetako eskaintzaz gain, JFKSren Pasaia Badia Aktiboko eskaintzen berri ere emango da. Hori dela eta, euskarri horiek elkarrekin prestatuko dira.

Instalazioetako kartelak aldatu behar badira, horiek eragindako gastua bere gain hartuko du, J)1 atalean ezarritako zenbatekoraino.

Webgune bakarra www.pasaia.eus izango da, eta kontratu honi atxikitako sare sozialak Pasaiako Udalarenak izango dira.

Buletina eta mailingak. Gutxienez hilero bidaliko dira.

Argitalpenak sare sozialetan. Gutxienez, 15 egunean behin egingo da udaleko sare sozialetan. Testua eta dagokion euskarri grafikoa bidaliko dira JFKSra, eta webeko argitalpenetarako ezarrita dagoen protokoloa beteko da.

Zeregin horietarako guztietarako, kontuan hartu beharko dira JFKSk hizkuntza-alderdiei, zuzenketei, irudiei, diseinuei, testuei eta abarri buruz ezartzen dituen baldintzak, horretarako ezartzen den aurrerapenarekin.

Bai tasak eta baita iragarki, propaganda edo bestelako idatzi guztiak edo esleipendunak antolatutako jendaurreko ekitaldi oro ere euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, eta euskarari lehentasunezko trataera emango zaio. Era berean, Pasaiako Udalaren logoa jarri behar da idatzi guztietan “Pasaiako Udala / Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Saila – Departamento de Actividad Física y Deportes” idazkunarekin batera.

7. Zerbitzua emateko behar diren langileak.

Enpresa kontratistak kirol-instalazioetako langileak kudeatuko ditu. Honako hauek izango dira:

Enpresa kontratistak bere kabuz ematea proposatzen dituen langileak eta aurreko kontratazioetatik subrogatzen diren langileak. Langile horiek kontratista den enpresako kide izatera igaroko dira, eta aurreko enpresetan onartuta zituzten laneko eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko dira. Ikusi subrogazio zerrenda 3. eranskinean.

Kontratuan jasotako zerbitzu hauek, gutxienez, langile hauekin emango dira:

Esleipendunak beharrezko langileak jarriko ditu (enpresarenak edo azpikontratatutakoak), jarduerak antolatzeko, eta kudeaketa administratiboa, mantentze-lana, erabiltzaileen arreta eta jendaurreko ordutegian instalazioen kontrola egiteko.

Nolanahi ere, gutxienez, langile hauek izan behar ditu:

Kudeaketaren arduradun bat, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Gradua edo baliokidea duena. Batez ere goizez lan egingo du, udal zerbitzuekin koordinatu ahal izateko, eta kudeaketaren arduradun nagusia izango da.

Astelehenero bilduko da, gutxienez 2 orduz, JFKSko talde teknikoarekin.

Harreran erabiltzaile fluxu gutxien dauden ordutegietan harrerako lanak beteko ditu, urtean gutxienez 420 ordu.

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 919
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA
kirolak@pasaia.net

Goiz eta arratsaldeko ordutegian lan-egin beharko du bi instalazioetako beharrak, ezagutzak eta zerbitzuak kontrolpean edukitzeko.

Arduradun hori segurtasunaz eta Pasaiako Udalak diseinatu eta onartutako auto babeserako planak betearazteaz arduratuko da, eta udaleko segurtasun-arduradunarekin elkarlanean arituko da, plan horiek bete daitezen.

Arduradunak telefono mugikor bat edukiko du eta prestasun osoa, hau da, Pasaiako kirolguneetako ordutegi/egutegi osoan sortzen den edozein beharren ardura hartuko du uneoro.

Halaber, ondorengo lanak egiteko beharrezko langileak izango ditu:

-**Trintxerpeko Azoka eraikina (gimnasioa)**: egunero ireki eta ixtea, garbiketa- eta mantentze-lanak, administrazio-lanak eta kirol kudeaketa, abonu eta sarreren kontrola, jendearen arreta gimnasioa irekita dagoen ordutegian. Hau da, beti egongo da norbait harreran. Zama- eta kardio-gelan arreta espezializatua izango da, eta entrenamendu-zerbitzu pertsonalizatua eskainiko da. Zuzendutako jardueretarako begiraleak.

-**Aldagelak, komuna, frontoia, frontoi txikiak, rokodromoa/bulderra eta entrenamendu funtzionalerako gunea**: ireki, itxi, sarbideak kontrolatu, mantentze-lanak egin eta garbiketa egin.

-**Aranederko pistak eta Azkueneko pista**. Ireki eta itxi, adierazitako ordutegiaren arabera. Kalteen parteak bidali, gertakariren bat izanez gero.

-**San Pedroko gimnasioa.** Erabileren kudeaketa, ireki, itxi, sarbidea kontrolatu, ikastaroen programazioaren edo partikular nahiz taldeen erreserben arabera. Kudeatzaileek lehentasuna izango dute instalazio honetan aste barruan ikastaroak programatzeko garaian.

Astelehenetik ostiralera goizeko ordutegi-tarte bat errespetatu beharko dute San Pedroko jubilatuen etxetik programatutako jardueretarako, eta horiek ez dute tasarik ordaindu beharko. Gainerako ordutegietan elkarteek eta udalerrian erregistratutako beste taldeek dohainik erabili ahal izango dute; partikularrek, berriz, Pasaiako kirolguneetako bazkide izan behar dute, edo dagokion alokairuaren tasa ordaindu.

-Donibaneko pilotalekua. Gune honetako erreserbei erantzun egingo zaie, eta hamabost egunean behin instalazioko hutsuneei buruzko txostena helarazi beharko da.

-Donibaneko gimnasioa. Egunero ireki eta ixtea, garbiketa- eta mantentze-lanak, administrazio-lanak eta kirol kudeaketa, abonu eta sarreren kontrola, jendearen arreta instalazioa irekita dagoen ordutegian. Hau da, beti egongo da norbait harreran. Pisuko eta kardioko gelan arreta espezializatua izango da, eta entrenamendu-zerbitzu pertsonalizatua eskainiko da, eskaerarik izanez gero. Piraguen alokairu zerbitzua eta alokairuen kudeaketa sustatu beharko da.

Langileen kostuari dagokionez, hauek izan dira kontuan:

DLKan %100ean subrogatutako langileak Donibaneko gimnasioan betetzen zuen lan-saioaren % 27,15ari dagokion dotazio ekonomikoa aurreikusi da harrerako lanekin bat egiteko.

Donibaneko gimnasioaren itxiera teknikoa eta neguko ordutegia dela eta dagokion doikuntza ekonomikoa egin da.

Gaixotasunekin lotutako bajak eta bestelako baimenen eta lizentzien beharrak asetzeko, urtero batez beste % 4ko kostu gehigarria ezarri da.

Subrogatzen diren langileei dagozkien antzinatasunak ere hartu dira kontuan.

Belaunaldien arteko mekanismoaren kontzeptuarekin lotutako zergaren kostua kontuan hartu da.

Langileen oinarrizko soldataren igoeraren kostua ezin izan da kontuan hartu da egungo erreferentziazko hitzarmenak eguneratu gabe daudelako. Hori dela eta, lizitazio formula egokitu egin da urte beteko kontratua proposatuz gehi urte beteko 3 luzapen ahalbidetuz. Formula horrek margena emango du negoziazio berriak aztertu eta adosten badira, soldaten eguneraketarekin lotutako ekarpen ekonomikoak berraztertzeko urteko

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

epealdian.

7.- UDALAREN BETEBEHARRAK

Pasaiako Udalak betebehar hauek izango ditu:

a).- Udalak esleipendunari Pasaiako kirolguneetako instalazioak utziko dizkio, behar bezala hornituta, helburuak betetzeko eta dagozkion lanak egiteko.

b).- Konponketak:

-Konponketarako materiala: konponketak egiteko beharrezko materiala Udalaren kontura izango da, betiere unitate bakoitzaren balioa 300 eurotik gorakoa bada (BEZ gabe). Zenbateko hori ezarri da unitateko prezio gisa.

-Konponketarako eskulana: eskulanerako ez bada espezialista bat behar, kudeaketako mantentze-lanetako langileekin egingo da. Kanpoko espezialisten lana beharrezkoa bada, Udalaren kontura izango da, betiere lan bakoitzaren eskulanaren balioa 150 eurotik gorakoa bada (BEZ gabe).

Esleipendunak ezin ditu inondik inora kalteak eta konponketak pilatu, eta Udalak egin beharrekotzat jo.

c.-) Udalak Pasaiako kirolguneetako kudeaketaren jarraipena eta gainbegirapena egingo du, eta beharrezko jarraibideak ezarriko ditu. Mantentze-lan hauek hartuko ditu bere gain:

-Beharrezkoa bada, aldageletako dutxen legionelosia prebenitzeko planaren mantentze- eta egikaritze-lanak egingo ditu, enpresa homologatu bidez.

-Arratoiak eta intsektuak desagerrarazteko zerbitzua, enpresa homologatu bidez, beharrezkoa denerako.

-Suteen aurkako sistemaren mantentze-lanak, beharrezkoa izanez gero.

-Igogailuen mantentzea.

d.-) Udalak bere gain hartuko ditu Pasaiako kirolguneetako energia eta ur-hornidura gastuak lizitazio urte bakoitzean ezarri den kw kopuruaren mugaraino. Urtero errebisatuko dira argindar eta gas kontratuetako kontadoreak eta aurreko urteetako tendentziak aztertuta ezarri den Kw/urteko mugaraino bere gain hartuko udala kontsumoen ordainketa. Hortik aurrerako kontsumoak, lizitazio urte bakoitzaren amaieran fakturatuko zaizkio kudeatzaileari hornigai bakoitzeko urteko KWaren prezioaren bataz bestekoa kalkulatuz.

Gasa Donibane	Ez dago erreferentziazko daturik / No hay datos de referencia
Gasa Trintxerpe	30.000 Kw/urteko / Kw/año
Argindarra Donibane	30.000 Kw/urteko / Kw/año
Argindarra Trintxerpe	31.000 Kw/urteko / Kw/año

e.-) Udalak bere gain hartuko ditu Azkueneko pisten, Aranederreko pisten, San Pedroko gimnasioaren eta Donibaneko pilotalekuaren kanpoaldeko urbanizazioaren mantentze-lanak, hornidurak eta garbiketa.

f.-) Udalak konponduko ditu kontratua egikaritzen den bitartean Administrazioaren eta esleipendunaren artean sortzen diren gorabeherak.

8.- USTIAPENAREN ERRENTAGARRITASUNA

Goian aipatutako kostuen atalari enpresaren kostuak erantsi zaizkio:

- Gastu orokorrak % 4.
- Irabaziak % 6.

9. KONTRATUAREN IRAUPENEKO PROIEKZIOA

- **Diru-sarreren proiekzioa:**

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 919
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA
kirolak@pasaia.net

Udal konpentsazioa finkoa izango da kontratuak irauten duen bitartean.

Aurretik aipatutakoaren baitan, 2023. urte bukaera bitartean abonatutako pertsonen kopurua mantentzea eta % 5 handitzea aurreikusten da. Tasak, berriz, izoztuta jarraituko dutela aurreikusten da.

2024. urtetik aurrera urtero % 10eko igoera aurreikusi da: bazkidetzen igoerari dagokionez % 9, eta tasen eguneraketari dagokionez, % 1 gutxienez urtero. Hori horrela izanda, 2019ko abonatu datuak kudeaketa berri honen 4. urtean lor daitezkeela baloratu da.

Jarduera nagusiaren zerbitzu osagarriengatiko diru-sarrerak joera berdintsuan mantenduko direla aurreikusi da.

Ikastarogile kopurua handitzeko margena dago 2019ko datuak ikusita.

- **Gastuei dagokienez**

2017-2022eko bataz besteko KPIa 14,2, zati lau = 3,55eko igoera urteko gastu guztietan (Azpiko inflazioarekin bat datorren datua, elementu energetiko lurrunkor horiek kontuan hartu gabe prezioak neurtzen dituena). Hortaz, % 3,55ko igoera aplikatu zaie urtetik urtera gastuen atal guztiei, hornidura energetikoari izan ezik.

Langileen gastua kalkulatzeko, antzinatasunak hartu dira kontuan, kasuan kasu, dagokion hitzarmenari kasu eginez. Dena den, Titulartasun Publikoko Gipuzkoako Kirol Instalazioen eta Ekitaldi eta Kirol Lokalen hitzarmenek urteak daramatzate iraungita. Ezin dira kontuan hartu soldaten eguneraketak bi horien negoziazio kolektiboaren amaiera arte. Aurretik egindako aipamenarekin batera lizitazio formula egokitu egin da urte beteko kontratua proposatuz gehi urte beteko 3 luzapen ahalbidetuz. Formula horrek margena emango du negoziazio berriak aztertu eta adosten badira, soldaten eguneraketarekin lotutako ekarpen ekonomikoak berraztertzeko urteko epealdian.

Belaunaldien Arteko Mekanismoaren (BEM)kontzeptuarekin lotutako zergaren kostoa kontuan hartu da.

Gaixotasunekin lotutako bajak eta bestelako baimenen eta lizentzien beharrak asetzeko, urtero batez beste %4 kostu gehigarria ezarri da.

Hornidura-gastuak, aipatutako mugekin, udalak asumituko ditu, baina enpresak tentuz jokatu beharko baliabide horien kontsumo arduratsuak eta proportzionalak eginez. Kirol arloko enpresak kontratu honekin lotuta asumitzen duen ia arrisku bakarra bere kirol kudeaketaren politikaren baitan egongo da, izan ere, horniduren prezioen arriskua eta ardura Udalak hartzen ditu bere gain.

Lizitazio osorako gastuen proiekzioa

	2023	2024	2025	2026
Pertsonala	166.738,80	180.077,90	194.484,16	210.042,87
Mantenua	2.450,00	2.537,00	2.627,00	2.720,30
Informatika	890,00	921,60	954,30	988,20
Telefonoak	800,00	828,40	857,80	888,30
Fotokopiadorak	825,00	854,30	884,60	916,00
riesgos lab	359,00	371,70	384,90	398,60
Garbiketa zerbitzuak	280,00	289,90	300,20	310,90
Garbiketa produktuak	2.100,00	2.174,60	2.251,70	2.331,70
Kirol materiala	2.500,00	2.588,80	2.680,70	2.775,80
Ofizina materiala	160,00	165,70	171,60	177,70
Langileen arropa	180,00	186,40	193,00	199,90
Serv. bancarios similares	358,00	370,70	383,90	397,50
Comisiones, avales y	135,00	139,80	144,80	149,90

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

similares				
Komunikazioa	2.000,00	2.071,00	2.144,50	2.220,70
	179.775,80	**193.577,80**	**208.463,16**	**224.518,37**
Estruktura gastuak	7.191,03	7.743,11	8.338,53	8.980,73
Enpresaren etekina	6.496,73	7.146,40	7.861,04	8.647,14
Guztira (BEZ gabe)	**193.463,56**	**208.467,32**	**224.662,72**	**242.146,24**

10.- ONDORIOAK

Honaino adierazitakoa kontuan, diru-sarrerak sortzea eta kirol-kudeaketarekin lotutako gastuen egitura modelizatzea eta horiei eustea kontratista den enpresa lizitatzailearen trebetasun profesionalaren mende dago. Txosten honetan aipatzen diren guztiak kontuan izanda, Pasaiako kirolguneetako kirol-instalazioen ustiapena ematea bideragarria dela berresten da, betiere Pasaiako Udalak gehienez **93.391,74** euro (gehi BEZ) ordaintzen badizkio enpresa emakidadunari kontratuaren urte bakoitzeko kudeaketarako. Hortaz, gehienez udalaren konpentsazioa kontraturako aurreikusitako emaitzaren % 43an ezarri da.

	2023	2024	2025	2026	
Diru-sarrerak	108.278,79	118.023,88	128.646,03	140.224,18	495.172,88
Gastuak	193.463,56	208.467,32	224.662,72	242.146,24	868.739,84
Udalaren konpentsazioa	85.184,77	90.443,44	96.016,69	101.922,06	373.566,96
				Urteroko udalaren konpentsazioa BEZ gabe	93.391,74
				Urteroko udalaren konpentsazioa BEZarekin	113.004,01

Udal konpentsazioa= Udal konpentsazioa 2023-26*BEZ/epea= 373.566,96*1,21/4= 113.004,01 €/urteko BEZ barne.


Pasaian, 2023ko martxoaren 21ean
Ibai Saavedra
Kirol teknikariak
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren saila.


ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 919
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA
kirolak@pasaia.net

ERANSKINAK 1
INSTALAZIOAREN EGUTEGIA





ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

ERANSKINAK 2
INDARREAN DAUDEN PREZIO PUBLIKOAK

07 - PASAIAKO KIROLGUNEAK

07 - COMPLEJOS DEPORTIVOS DE PASAIA

001 - Kirolguneak: Abonatuak ez direnentzako eguneko sarrera

001 - Complejos deportivos: Entrada día para personas no-abonadas

< 18 urte	1,90 Euro	< 18 años
>= 18 urte	3,80 Euro	>= 18 años

002 - Kirolguneak: Alokairuak

002 - Complejos deportivos: Alquileres

Eskola-umeentzako tarifa: Pasaiako ikastetxeei aplikatzekoa, talde bakoitzeko eta orduko	9,60 Euro talde-grupo/orduko-hora	Tarifa escolar: de aplicación a los Centros Educativos ubicados en Pasaia, por grupo y hora
Frontoi txikiak eta squash gela: orduko (< 18 urte)	1,90 Euro/orduko-hora	Frontones pequeños y sala de squash: hora (< 18 años)
Frontoi txikiak eta squash gela: orduko (>= 18 urte)	3,20 Euro/orduko-hora	Frontones pequeños y sala de squash: hora (>= 18 años)
Areto balioanitza-alokairua: orduko (< 18 urte)	15,10 Euro/orduko-hora	Alquiler de sala polivalente: hora (< 18 años)
Areto balioanitza-alokairua: orduko (>= 18 urte)	18,90 Euro/orduko-hora	Alquiler de sala polivalente: hora (>= 18 años)
Kirol pistaren alokairua: orduko (< 18 urte)	30,30 Euro/orduko-hora	Alquiler pista deportiva: hora (< 18 años)
Kirol pistaren alokairua: orduko (>= 18 urte)	37,80 Euro/orduko-hora	Alquiler pista deportiva: hora (>= 18 años)
Kirol pistaren alokairua: Ez-ohiko jarduerak: orduko	78,70 Euro /orduko-hora	Alquiler pista deportiva:Actividades extraordinarias:hora
Frontoia orduko partikularrak: (< 18 urte)	5,20 Euro/orduko-hora	Frontón por hora particulares: (< 18 años)
Frontoia orduko partikularrak: (>= 18 urte)	10,50 Euro/orduko-hora	Frontón por hora particulares: (>= 18 años)
Frontoia orduko partikularrak:Ezohiko jarduerak orduko. Pasaiako elkarteek antolatutako jarduera publiko eta doakoak (garbiketa gastuak aparte)	10,50 Euro/orduko-hora	Frontón por hora particulares: Actividades extraordinarias por hora: actividades públicas y gratuitas organizadas por asociaciones de Pasaia (gastos de limpieza aparte)
Futbol-zelaia, orduko, partikularrak: Osoa (>= 18 urte)	43,90 Euro/orduko-hora	Campo de fútbol por hora particulares: Entero (>= 18 años)
Futbol-zelaia, orduko, partikularrak: Erdia (>= 18 urte)	21,80 Euro/orduko-hora	Campo de fútbol por hora particulares: Medio (>= 18 años)

003 - Kirolguneak: Iragarki pribatuak jartzea

003 - Complejos deportivos: Publicidad privada

Karteleko metro karratuko, ikasturtea (gehienez, 6 metro karratu)	90,10 Euro/m2	Metro cuadrado de cartel, por curso académico (máximo 6 metros cuadrados)

ESKU8fa30387-027c-45bc-b7cb-5ed89a36f5b4

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 919
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA
kirolak@pasaia.net

004 - Kirolguneak: Abonuak

Abonuetan, 18 urte azpikoei, 65 urtetik gorakoei eta langabezia-prestazio onuradunei lutenei tarifa bera ezarriko zaie.

004 - Complejos deportivos: Abonos

En los abonos, se aplicará la misma tarifa a las menores de 18 años, mayores de 65 años y a las desempleadas que perciban prestación.

Banako-abonua: urte osoa (< 18 urte)	68,90 Euro	Individual: Anual (< 18 años)
Banako-abonua: urte osoa (>= 18 urte)	101,90 Euro	Individual: Anual (>= 18 años)
Banako-abonua: hiru hilabete (< 18 urte)	23,90 Euro	Individual: trimestral (< 18 años)
